


Euskal Autonomia Erkidegoko industria-prezioek % 0,5 egin zuten gora 2020ko abuztuan, aurreko hilabetearen aldean

2019ko abuztuaren aldean, industria-prezioek % 2,8 egin zuten behera

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-prezioek % 0,5 egin zuten gora 2020ko abuztuan, aurreko hilabetearen aldean, Eustaten datuen arabera. Abuztuko urte arteko tasa –azken hamabi hilabeteetako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du– % 2,8koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Analisi xehatuago batek agerian uzten du 2020ko abuztuan aurreko hilaren aldean prezioetan hazkuntza nabarmenenak erregistratu dituzten sektoreak honako hauek izan direla: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 3,0ko igoera), *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* (% 1,2ko igoera) eta *Ura* (% 0,7ko igoera). Prezioetan hilen arteko beherakada handienak izan dituzte, berriz, honako sektore hauek: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza* (% 6,9ko beherakada), *Erauzketa-industriak* (% 3,3ko beherakada) eta *Industria kimikoa* (% 1,7ko beherakada).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraikiz, aurreko hilabetearen aldean, *Energiak* gora egin du prezioetan (% 1,6), *Tarteko ondasunek* % 0,2 egin dute gora, eta *Ekipo-*

ondasunek % 0,1 egin dute gora. Kontsumo-ondasunen prezioek, berriz, % 0,1 egin dute behera, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren azpisektorean % 0,2ko beherakada egon delako; Kontsumo-ondasun iraunkorren azpisektorean prezioak egonkor daude.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2020ko Abuztua

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2020abu / 2020uzt	2020abu / 2019abu
INDIZE OROKORRA	100,9	0,5	-2,8
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	106,6	-3,3	0,6
Manufaktura-industria	101,5	0,1	-3,0
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	104,2	0,2	0,8
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	109,6	-6,9	2,2
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	103,8	0,2	-3,2
Kokeak eta petrolioaren fintzen	85,5	-0,4	-22,4
Industria kimikoa	108,3	-1,7	-0,3
Botiken fabrikazioa	108,3	-0,6	0,0
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	99,0	0,1	0,3
Metalurgia eta produktu metalikoak	101,5	0,4	-1,2
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	103,6	1,2	2,5
Material eta ekipa elektrikoen fabrikazioa	104,7	0,0	1,5
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	103,2	0,1	-3,8
Garraiorako materialen fabrikazioa	108,9	0,1	3,2
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	106,5	0,4	0,9
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	96,8	3,0	-1,5
Ura	110,5	0,7	3,3
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	104,8	-0,1	1,0
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	104,0	0,0	0,6
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	104,9	-0,2	1,1
Ekipa-ondasunak	107,9	0,1	0,5
Bitarteko ondasunak	101,7	0,2	-0,9
Energia	91,2	1,6	-13,0

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan, 2020ko abuztuan, 2019ko abuztuaren aldean, prezioen hazkuntzarik handienak honako adar hauetan izan dira: *Ura* (% 3,3ko igoera), *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 3,2ko igoera) eta *Produktu informatiko, elektronikoa eta optikoen fabrikazioa* (% 2,5eko igoera). Beherakada handienak izan dituzte, berriz, honako sektore hauei dagozkien prezioek: *Kokeriak eta petrolio-fintzea* (% 22,4 behera), *Makinen fabrikazioa eta ekipoa* (% 3,8 behera) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 3,2 behera).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera talde handien prezioen aldakuntza urte arteko aldian positiboa izan da *Kontsumo-ondasunetarako*, % 1,4ko igoera erregistratu baitute. Azken horien artean, % 1,1 egin dute gora *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrek*, % 0,6. *Ekipo-ondasunen* prezioek % 0,5 egin dute gora, urte arteko terminoetan. Prezioetan beherakadak izan dituzte, berriz, *Energiaren* sektoreak (% 13,0 behera) eta *Tarteko ondasunek* (% 0,9).

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62